

IRITZIA
Ana Artetxe

ERREPORTAIA
Maite
Barruetabeñak
PIRENAn parte
hartu du

BARREN

1998ko otsailaren 13a
VI. urtea - 225. zkia.


E L G O I B A R K O A S T E K A R I A



UDALETXETIK
Santa Klarako
berritze lanek 60
milioiko kostua izan
dute

GEHIGARRIA
TxikiBARREN

BERBETAN
Iñigo Astigarraga,
Auñamendietan
telebista
programako kamara



Maite Barruetabeña
eta bere txakurrak
Lehenengo aldiz PIRENAn

“Zortean baino, konfiantza handiagoa izan behar da norberak egiten duen lanean” A. Lincoln

Elgoibarko Izarrako Santa Ageda Koruak (1994-1998)

5 urte

MILA-MILA ESKER

BASERRITAR GUZTIOI





ANA ARTETXE

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Gazteagoa nintzenean bazen urtean egun bat, naizenaren kontrakoa izateko gogoia izaten nuena: mutila. Urteak joan eta urteak etorri, zer nolako enbidiak pasatzen nituen nik eguna gainean zela ohartu, eta kalean zehar nindoala, edo etxean nengoela, soinu hots haren musika belarrietara heldu eta zapi koloredun haiek ikusten nituenean.

Bazirudien, ba, hori, neska jaio nintzela eta betirako nire barrutik bakarrik kanta ahal izango nuela: "iez bezela kantari gaur hemen gera etorri" eta antzerako beste asko.

Baina urteak aurrera joan, eta gure herri honek ematen dituen aukeretako bati helduz, zer zen jakiteko aukera izan nuen, makila eskuan, nire ideal hura oraindik are biribilago betetzea.

Han eman genuen arratsaldea lehenengo, eta, afal ostean, baita gauaren zati eder bat ere. Eta kantuen tonuak ondo ezagutzen banituen ere, ez nekien, egia esan, tradizioak zenbait gauza agintzen zituenik. Eta zein izan zen nire harridura, lehen baserri hartako bizilagunei zuzenki koplak kantatzen hasi eta atea berehala zabaldu ez zu-

tenean. Ondoren jakin nuen koplarietara lehenengo lanean utzi behar zaiela, geroago atea zabaldu eta koplak gehiago entzun. Ondoren diru laguntza bota eta kantarietara kafea, patxarra, Sanblasa etab. eskaini ostean, agurtu. Tradizioa ikasi eta ohiturari jarraituz, heldu ziren gauerdetik aurrerako ordu haiek, eta orduan ere jakiteko aukera izan genuen batzuek entzun ez, eta beste

batzuek ez entzuna egiten ziotela Santa Agedaren bular mozketaren historia hari. Izan ere, ordu horretan ohe epelaren historia entzutea ere oso gozoa da, eta gainera, denek ez daukate zergatik izan santu honen alde nik dudak debozioa. Baina zer esango dizuet, horrek ere gauari berea jartzen zion.

Bi urtez bizi izan nuen horrela Santa Eskea, eta aurrerago ere izango direla espero dut.

Orain, lelo hori entzuterakoan gogorapen ederrak etortzen zaizkit, lehenengo idealizazio haren tokian. Ziur nago nire gogo hura izkutuan duten guztiek azalduko balute, Elgoibarko Izarraren Santa Eskea Elgoibarko baserri txoko guztietara helduko litzatekeela.

Eup!

"Bi urtez bizi izan nuen horrela Santa Eskea, eta aurrerago ere izango direla espero dut. Orain, lelo hori entzuterakoan gogorapen ederrak etortzen zaizkit, lehenengo idealizazio haren tokian"

Barra, birrak eta barreak





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
☎ 74 41 12
Publizitatea:
☎ 74 37 04
Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala

ZUZENDARIA Ainhoa Lodoso

ERREDAKZIO KONTSEILUA Andres Alberdi,
Rosa Agirregabiria

KAZETARIAK Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro

PUBLIZITATEA Miren Moreno

MAKETATZAILEA Mikel Cornejo

ADMINISTRAZIOA Amaia Martin

GERENTZIA Rafa Alvarez,
M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK Irati Agirreazaldegi,
Ana Artetxe, Mari Karmen Elorza,
Maider Elustondo, Jon Garate,
Amaia Gorostiza, Juanito Gorostiza,
Arnaitz Gorriti, Alberto Iriondo, KOKOE,
Imanol Larrañaga, Nieves Loiola,
Ongarri Zine Kluba,
Julian Segundo, Jon Suarez,
Anjel Ugarteburu, Leire Urkidi, Iban Urizar.

BANAKETA ARDURADUNA Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA Gertu Koop. E.

TIRADA 4.000 ale

LEGE GORDAILUA SS-1.038/92

ISSN 1133-021X

*Elgoibarko Udalak, Eusko
 Jaurlaritzako Kultura
 Sailak eta Foru
 Aldundiak diruz
 lagundutako
 aldiizkaria.*



Zine emanaldiak direla eta

224. zenbakiko kexa idatzi zuenari zera esan nahi diogu Udal Kutlura Zerbitzutik: herrian zehar hiru Zine karteldegia dauke zein pelikula ematen den adierazteko. Gainera, hilero hilero diptiko bat buzoneatzen da pelikulen berri emanez. Bestalde, Hercules pelikula ez da haurrentzat bakarrik, nagusientzat ere bada eta gauean ere ematen da hainbat herritan.

Amaitzeko, zera esan nahi diegu BARREnekoei: kexak argitaratzeko orduan araudi bat egon beharko litzatekeela: anonimoak ez izatea, argitaratu aurretik kontrastatzea,... bestela, oinarririk gabeko edozein kexa irten baitaiteke.

Udal Kultur Zerbitzua

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

GALDERAK

◆ San Rokeko bi gazte etorri dira **Erretxindirako bidea eta, batez ere, autopista gaineko zubiaren egoera lotsagarria dela esateko. Lehenago ere jarri omen dute BARREN-en kexaren bat, baina oraingoan Udalak zerbait egiteko asmoa duen ala ez jakin nahi dute.**

Jose Mari Oruesagasti Hirigintzako buruak azaldu digunez, “Udalak badaki zulo asko dauala zona horretan eta ein biharreko konponketa guztiak, batera konpontzeko asmua dao. Izan ere, zuluak berehala konpontzeko asmua dakagu”.

◆ Emakume batek zera galdetu nahi du: **“Duela hiru bat aste tiobiboak**

kentzen hasi ziren Aita Agirre Plazan. Hauen karabanak Santa Ana kaleko aparkalekue-tan daude eta nahiz eta dena desmontatua izan, karabanak han daude oraindik. Apar-kaleku mordoa oku-patzen dute eta noiz joango diren jakin nahi dut, San Anton jaiak aspaldi pasatu baitziren.”

Udaltzaingotik esan digutenez, tiobiboetako-ek urtarrilaren 30era arte zuten baimena, baina, itxura denez, orain gutxi beste pertsona batzuek etorri dira euren karabanekin. Sarjentoak esan bezala, kontrol bat ezartzen ari dira eta gehienez hiru egun akanpatzeko esaten zaie.

TXALOAK

◆ Ikastolako 6. maila-koek joan den egunean piano kontzertua eman zuen **Xabier Lizaso** oriotarra txalotu nahi dute, “benetan saio polita eman zuelako”.

◆ Herritar batzuek **Herri Eskola** eta **Herri Institutua** txalotu nahi dituzte Internet-en web orria atera dutelako.

BAI, ESAN?



Celia Pinacho

Garbitasun Kanpainako teknikaria

Aste honetako deia **Celia Pinachori** luzatu diogu. Elgoibartar hau **Garbitasuneko plan piloatoan** lanean ari da. Askok ikusiko zuen kaleko hainbat txoko zaintzen. Ikus dezagun zertan ibiltzen den.

- **“Garbitasunaren zaindaria edo bijilantea” zarela esan daiteke?**

- Hasieran ez zen hori nire funtzioa. Garbitasunaren plana martxan jarri zutenean nire lana kartel informatiboak egin eta dendariei eta herritarrei informazioa eskaintzea zen. Baina gero jendea niregana etortzen hasi zen kexa eta kezak azaltzera. Orduan, kexa horiek Hirigintza sailera edo Udaltzaingora bideratzen ditut eta elkarrekin egiten dugu lan. Honez gain, egunero zabor eta paper kontenedoreak eta inguruak nola dauden ikusten dut eta ikastetxeetan ere hitzaldiak, tailerrak eta horrelakoak egiten ditut. Haurrekin lanean aritzen naiz, kontzientziazio mailan, kanpainaren helburu nagusia kontzientzia sortzea baita.

- **Herritarrei ez zikintzeko esatea zure lana al da?** - Bai, egunero goiz eta arratsalde, kalean ibiltzen naiz. Eliz arkupeetara adibidez, ia egunero joaten naiz. Han egoten diren gazteei gauzak lurrera ez botatzeko esatea da nire betebeharra. Ondoren udaltzainei zein lekutan dauden arazoak esaten diet. Elgoibarren badaude leku “konfliktiboak” garbitasunari dagokionean: IMH, Arregitorre, Lanbroa ostea, Plaza Handia,... Plazan, adibidez, emakume asko pipak jaten egoten dira eta leku nahiko zikina da.

- **Isunik jarriko al zaio zikintzen duenari?** - Udalerrri guztietan garbitasunari buruzko ordenantzak daude eta udaltzaingoaren esku dago isunak jartzea. Argi dago paper edo zigarro punta bat lurrera botatzeko ez dela isunik jarriko. Baina ordenantzetan 1.000 pta.tik 10.000 pta. bitarteko isunak kontenplazten dira jokabide jakin batzuetan, adibidez, ibaira zaborrak botatzen badira. Oraindik ere zaborrak erreke-rra botatzen ditu jendeak. Txarrena da ez dakigula zein den.

- **Zein da elgoibartarron jokabidea kalean?** - Nahiko zikinak gara. Garbitasuna norberarengandik hasi behar da. Kalean etxean bezala jokatu beharko genuke nahiz eta zaila den hori lortzea. Gainera kanpaina hau tontokeria bat dela uste dute askok, “kaleak baino askoz egoera txarragoan daude gauza asko, ibaia, adibidez” esaten didate batzuetan. Horregatik, zaila izango da den-dena garbi egotea baina badakigu agian hori lortu daitekeela umetatik lanean hasten bagara.

II. URTEURRENA

1996ko otsailaren 11an, 21 urte zituela hil zen

GAIZKA GALDOSen oroimenez

URTEURRENEKO MEZA izango da Mendaroko

Inmaculada Concepción elizan igandean, hilak 15, eguerdiko 12etan.

Joaten zaretenoi eskerrak alde zurretik.



PIRENA Elgoibartarren partehartze bikaina

Maite Barruetabeñak eta Fernando Ruizek duela hiru urte Shuka erosi zuten, husky arrazako txakurra. Haren ondoren Shiva eskuratu zuten eta gaur egun 16 txakur dituzte. Poliki-poliki, txakur horien inguruan dagoen mundu berri bat eza-gutu eta, ia konturatu gabe, konpetizioetan hasi ziren. Aurten, Maitek Pirena izeneko konpetizioa korritu du. Bi aste pasa ditu Pirinioetan beraien hamar txakurrekin eta 50 partehartzaileen artean 19. postua lortu du. Iritsi berria da Elgoibarre-ra eta, ia deskantsatzeko astirik izan gabe, asteburu honetan Espainiako Txapelketan hartuko du parte. Bi aste barru, berriz, Fernando Alemaniara doa, Europako txapelketan korritzera.

Pirena Europa mailako konpetizio bat da, dauden gogorrenetarikoa Maitek esan digunez. Hamabost egunetan 700 kilometro egiten dira Pirinioetako estazio guztietan zehar, “egun batzuetan gainera, bi etapa egoten dira, goizez eta gauez”. Maite Barruetabeñak 29 urte ditu eta aurten lehenengo aldiz hartu du parte Pirenan. Berak kontatu digunez, “zirkuito bat dago eta etapa guztiak batuz denbora gutxien

egin duenak irabazten du”. Aurten Noruegako gizon bat izan da txapelduna, Kasten Groonas, eta Maitek ere oso postu ona lortu du, 19.a geratu baita. Axen Garitano bergararra 20. postuan iritsi da, Maiteren atzetik.

50 partehartzaile eta 4 neska.

Pirenako aurtengo edizioa sekula baino gogorragoa izan omen da, “inoiz baino kilometro gehiago izan dira eta”. 50 partehartzaile izan dira guztira eta horietatik emakumeak 4 bakarrik. Maiteren hitzetan, hain emakume gutxi egotearen arrazoia, “froga oso gogorra delako da”. Izan ere, jendeak ez du era honetako kirola oso ondo eza-gutzen baina kontuan izan behar da hamabost egunetan, egun argiz eta gauez, hamar-hamabi txakur hartuta trineoan joan behar izaten dela zirkuito batean, aldapa gora eta behera handiak zeharkatuz.


Maite ia kasualitatez aurkeztu da Pirenara. Izan ere, iazko udan Espainiako txapeldunarekin egon ziren eta hark MRW mezularien konpainia aipatu zien



patrozinatzaile moduan. MRWk emakume baten irudia patrozinatu nahi zuen. Horregatik, hasieran Fernandok korritu behar zuen arren, azkenean Maiteri suertatu zitzaion Pirenan parte hartzea. Orain arte Maitek handler lana egin izan du, txakurrak zaindu, trineoaren egoera ona mantendu eta abar.

Musher bezala Fernando ibiltzen zen, hau da, txakurren gidaria trineo gainean Fernando izan ohi zen. Horregatik, behar baino gutxiago prestatu dela aitortu digu Maitek, “saiatu naiz ahalik eta korrikarik gehien egiten





ALASKARA

Gaur egun 16 txakur dituzte eta beste 6 eskuratu nahi dituzte bi tiro egin ahal izateko, bata 12 txakurrek osatua eta bestea 10ek. Mementur Sigmako lokal batean dituzte txakurrak baina baserri batera joateko asmotan daude. "Pirenan mundu berri bat gertutik bizitzeko aukera daukazu. Jende gehiena mendian bizi da, baserrietan eta, nahi eta nahi ez, zuri ere horrelako bizitza izateko gogoia sartzen zaizu". Iz hori bakarrik, Maite eta Fernandezen asmoen artean egunen batean Alaskara joatea da. Izagunak dituzte eta kontaktuak ere, "Alaskan jendea txakurrekin bizi da. Turistak trineoz garraiatzen dituzte eta etapa desberdinetan txiringitoak montatzen dira. Lagun bat laster da bertara joatekotan patata-tortila txiringito bat montatu eta txakurrekin bizitzera. Fernandezek eta biok ilusioa daukagu hori egiteko. Betirako joatea beharbada gehiegi esatea da baina 10 urte edo pasatzera oraintxe bertan joango nintzateke". Bien bitartean, prest dago berri ere Pirenan parte hartzeko.

rrak primeran ibili dira".

Er ginean b

Pirenak iraun zuen hama-bost egunetan goizeko 5:30ean altxatzen ziren. Hortik aurrera egun osoa ematen zuten txakur-rrak prestatzen, jaten ematen, likidoa, korrika...

"Hamabost egunetan ez duzu ia lorik egiten. Dena planifikatu egiten da eta ordu jakinetan jan behar duzu, lo... ". Etapa batzuek bi zati izaten zuten, egunez eta gauez. Gauez, elur gainera zakua bota eta han egin behar zuten lo, "baina nik ez nuen lorik egiten. Oso erromantikoa dela zioten baina nik ez nion ukitu erromantikorik topatzen". Ilunetan txakurrek gidatzen zuten trineoa, "ez da ia ezertxo ikusten. Hasieran errespeto pixka bat ematen dizu zeren ez

baitakizu nondik zoazen, baina berehala konturatzen zara txakurrengan konfidantza osoa izan behar duzula".

Frodo, eguneko irudia

Maite eta Fernandezekin batera beraien hamar txakurrak izan dira protagonistak. Hona hemen euren izenak: Holly eta Thelma liderrak, Noisset, Neu, Fanny, Kiska, Chinook, Hada, Auronzo eta Frodo. Frodo Pirenako etapa batean Eguneko Irudia izan zen, "oso txakur sinpatikoa eta mimosoa da". Hamar txakur hauetatik 7 emeak dira eta 3 arrak. Emeak azkarragoak dira baina arrek indar gehiago dute, "askoz hobeto ibiliko nintzateke aurrean 4 eme eta atzeko partean 6 ar eraman izan banitu, atzekoek indarra eramateko eta aurrekoek abiadura". Hala ere, Maitek ez du batera kexarik bere txakurrei buruz hitz egiterakoan, "asko maite ditut. Partehartzaile askok etapa ondo atera denean saria ematen die baina nik egunero ematen nien. Saria salmoi freskua izaten zen, asko gustatzen zaien arraina da". Bere ustez, "kanpoko txakurrak nahiago ditugu eta ez gara konturatzen etxean hazitakoek askoz konfidantza handiagoa dutela zugar. Ni oso gustura nago nire txakurrekin".

19. postua lortzeaz gain, animaliei errespetu gehien izateagatik ematen den trofeo ere Maiterentzat izan zen. "Nire ustez emakume batek ematen duen irudiak eragina izan du. Gu kariñoagoak gara beharbada, askoz gehiago musukatzen ditugu txakurrak... Saria sinbolikoa da, ze Pirenan parte hartzen duten guztiek animaliak maite dituztelako joaten dira".



aldapa goratan eta besoetako muskulazioa lantzen". Ostantzean, txakurrak Fernandezekin entrenatu ditu, "bera ibili da egunero txakurrak hartu eta batera eta bestera eramaten, behar bezala prestatzen. Kontuan izan behar da, gainera, 13 hilabeteko txakurrekin joan garela eta normalean txakur hauek 3 urtetik aurrera hasten dira onena ematen".

Iruzok

Hasieran arazoren bat edo beste izan zuten. Maitek azaldu duenez, "tiroan liderra zen txakurrak atzera begiratu eta ni ikusten ninduenean ez zuten korrika egiterik nahi, Fernandezekin ohituak zeuden eta. Lehen bi etapetan 45 minutu galdu nituen eta azken aurreko postuan nengoan. Gero, egoera gairatu eta berehala gogor hasi ziren txakurrak". Musher-ak txakurrekin batera korrika egin behar du, aldapa gora izan edo aldapa beheara, txakurrak etengabe animatu behar ditu, denbora guztian konfidantza eta indarra emanaz. "Etapa batzuetan zirku itoa oso gogorra zen, gertatu izan zen txakurrek kriston aldapa ikusi eta aurrera segitu beharrean buelta ematea. Guk, zorionez, ez genuen horrelako arazorik izan. Normalena da beheakoa izatea edo estresaturik amaitzea. Txakurrak ez daude ohituak horrenbeste egun jarraian korritzera. Zorionez gure txaku-

Noiz maitemindu zinen estreinakoz?



IÑAKI GOROSTIZA
66 urte, jubilatua

17 urte nakazenian nere an-
driaz enamorau nitzan. Le-
hen asko maitxe naban bai-
na oin, gero eta gehixo.
Pertsona bat betiko maitxa-
tzia, hoixe dala posible!



CARMEN DIEGO
41 urte, delineantea

10 urterekin edo, umetan
maitemindu nintzen eta
gaur egun pertsona beraz
nago maiteminduta. Nire
bizitzan gizon bakarra mait-
te izan dut, senarra.



YOLANDA NIETO
21 urte, ikaslea

12 urtekin maitemindu nin-
tzen. Luzaroan iraun zuen
sentimendu horrek eta
gauero berarekin pentsatzen
nuen. Harrez geroztik mait-
temindu izan naiz gehiago-
tan.



OLGA ZENGOTITA
31 urte, medikua

16 urterekin edo izango
zen. Benetan maitemindu
nintzanean ezkondu egin
nintzen, noski. Bikotearen
arteko harremana irauteko
zaindu egin behar da.



ELVIRA PÉREZ
55 urte, etxeoandrea

18 urterekin maitemindu
nintzen, nire senarraz. Due-
la 10 urte hil zen baina
oraindik ere maiteminduta
nago. Bera izan zen lehe-
nengo eta bakarra.



JOSE LUIS CÁMARA
19 urte, ikaslea

Bai, eskolan, baina mait-
emindu baino gehiago, gus-
tatu egiten zitzaidan. Ordu-
tik hona neska laguna izan
dut eta gaur egun beste ba-
tekin irtetzen naiz.

OLASO TABERNA

Olaso industrialdea, 15
Tel: 74 31 85

- EGUNEKO MENUAK -
- LARUNBATETAN -
Rabak • Olagarroa • Fritoak
- GAUEZ -
Menu ekonomikoak eta
plater konbinatuak

• Meriendak, haurrentzako meriendak,
afariak, luntxak, banketeak...
• Enkarguak egiteko aurrez deitu

ESKA EZAZU AURREKONTUA
INOLAKO KONPROMEZURIK GABE!

Orduategia: Astelehenetik ostiralera 7:00-22:30
Larunbatetan 9:00etatik aurrera



VI. URTEURRENA
*1992ko otsailaren 17an, 47 urte zituela hil zen
JUANJO SAN MARTIN OTEGIren oroimenez
URTEURRENEKO MEZA izango da Parrokian
larunbatean, hilak 14, arratsaldeko 7etan.
Joaten zaretenoi eskerrak aldez aurretik.*



ISPILUARI BEGIRA



*Guinoa
Julieta*

INEKOKO dendaria

- **Zein paisaia ikusi nahi zenuke etxeko leihotik?**
- Oin mendixa daukat baina itsasua ere asko gustatzen zat.
- **Zer gustatuko litzaizuke haztea zure etxeko ortuan?** - Zoriontasuna.
- **Zein animalia izango zenuke etxean?**
- Txakurrak gehiena gustatzen zaizkit. Oin Spitz japoniar bat daukat.
- **Gizarte honetatik zer moztuko zenuke motozerraz?** - Inbidia.
- **Eta zeri emango zenioke ongarrria ugaritzeko?** - Askatasuna, bakea...
- **Abarka majikoak bazenitu, noraino joango zinateke?**
- Ez naiz oso bidaiazalia baina holako aukera bat aprobe txau eta mundua ezautuko nuke.
- **Bizitza lorategia balitz, zein lirateke loreak?**
- Osasuna eta maitasuna.
- **Zein famaturekin joango zinateke afaltzera?**
- Anje Duhalde asko gustatzen zat.
- **Zeren lapikokada jango zenuke gustura?**
- Marisko paella bat.
- **Zer inguratuko zenuke arantzadun hesi batez?**
- Zentral nuklear bat.
- **Maitasuna betirako al da?**
- Nik baietz uste dot.
- **Zein afizio gustatuko litzaizuke ofizio izatea?**
- Antzerkia asko gustatzen zat baina ofizio bezela igual azkenerako aspertu ingo nitzake.
- **Zer eramango zenuke irla bakarti batera?**
- Telefonua eta listina, ezingo nitzake inokin berba ein be egon.
- **Zein gaitasun izan nahi zenuke?**
- Bertsotan aritzeko gaitasuna.
- **Zer eskatzen diozu 1998ari?**
- Bizitza datorren bezela hartzen dot, ezer eskatu gabe.



**CRISTALERIA
ELGOIBARRESA C. B.**

Bidriera artistikoak
Obra komertzialak

Urasandi, 12 behea
Tel-Faxa: 74 04 89



ELGOIBAR

**KAROBI
TABERNA**

Tel. 74 06 37
San Frantzisko, 37



II. URTEURRENA

*1996ko otsailaren 10ean, 71 urte zituela hil zen
MARIA AGIRREAMALLOA KALZAKORTA en oroimenez
URTEURRENEKO MEZA izango da Parrokian
larunbatean, hilak 14, arratsaldeko 7etan.
Joaten zaretenoi eskerrak aldez aurretik.*



● Eusko Trenerako txartelak berritzeko kanpaina

Eusko Tren enpresatik jakinarazi dutenez, tarifa murriztuko txartel berria atera nahi dutenek, beste dokumentu guztiak ez ezik, argazkia ere aurkeztu beharko dute. Aurrerantzean, txartel berriak bezeroaren argazkia eta banda magnetikoa izango ditu. Edozein zalantza argitzeko 45 01 31 telefono zenbakira dei daiteke.

● Jubilatuen Etxeko batzar nagusia

Datorren martxoaren 11n, ohiko batzar nagusirako deia egin du Jubilatu Etxeko zuzendaritzak. 1997ko ekintzen memoria eta beronen onarpena, gastu eta sarreren balantzea eta presidente berriaren hautaketa egingo dira. Batzarra arratsaldeko 17:30ean izango da.

● Gemma Monrealen erakusketa Hondarribiko paradorean

Gemma Monreal margolari elgoibartarrak bere lanak erakutsiko ditu Hondarribiko "El Emperador" paradorean hilaren 14tik martxoaren 14ra bitartean. 12 kuadro dira eta guztiak daude salgai. Merkeena 60.000 pta.n eskura daiteke eta 170.000tan garestiena. Erakusgai dauden koadro gehienak paisaiak eta hainbat lekutako txokoak dira, Jaen, Asturias edo Extremadura ingurukoak. Gemmak hiru erakusketa egin zituen iaz, Eibarren bi eta Elgoibarren bat, azken biak beste artista batzuekin batera.

Hilaren 20an martxan jarriko den OTAri alegazioak jarriko dizkiote herritarrek

Bihar, hilak 14, alegazio orriak jaso daitezke udal arkupeetan

Joan den asteartean, herriko 40 bat bizilagun Kultur Etxean elkartu ziren hilaren 20tik aurrera martxan jarriko den OTAk sortutako kezka dela eta. Bileran herritarrek euren iritzia plazaratu zituzten eta azkenean erabaki bat hartu zuten: bihar, hilak 14, pertsona bakoitzak sinatutako alegazio bat Udaletxean aurkeztea. Alegazioak eguerdiko 12:00etan aurkeztuko dituzte. Hortaz, interesa duten guztiei, ordu horretan udaletxeko arkupeetan elkar-tzeko asmoa dutela jakinarazi nahi zaie.

Herritar hauek aurkeztu dituzten alegazioen arabera, "OTAren inplantazioa, denon lurra, lur publikoa erabiltzearen jarri nahi diguten zerga berri bat besterik ez da". Sinatzaileen ustez, ez da planteiatzen aparkaleku

gehiago sortzeko biderik eta ez zaio benetako arazoari, aparkaleku faltari, alegia, aurre egiten. Era berean, OTA jartzeko erabakiak, eragina izango du herritar guztiengan, eta ez kale jakin horietan bizi diren auzokideengan bakarrik. "Izan ere, guztiok erabiliko ditugu toki horiek hainbat bisita egiteko denda zein erakundeetara".

OTAren ezarpenaren aurrean, "lehendabizi zenbat aparkaleku behar diren aztertze" eskatzen dute. Enpresa aditu batek aparkaleku berriak sortzeko aukerak aztertzea eraikin berri zein zaharretan, eta, leku libreak ordu batzuetan erabiltzea aparkaleku gehiago eduki ahal izateko.

Herrian jarri behar dituzten supermekatu handien aurrean, "herri barruko zerbitzuek gero eta gehiago aparkaleku-tzeko gune egoki eta publikoak beharko dituztela uste dugu". Eskaera hauek aintzat hartuz gero, aurkeztuko dira alegazioak.



● Zubi-Ondo Elkarteak zuzendaritza berria

Zubi-Ondo Elkarteak berriro egin du zuzendaritza 1998 urterako. Aukeratuak ondoko hauek izan dira: Presidente Txomin Mujika izendatu dute. Presidenteorde lanetan Jose A. Urbieta arituko da. Idazkaria J. L. Rezola aukeratu dute; E. Arberas diruzaina eta bokalak honako hauek: J. Armendia, J. M. Astigarraga, A. Sueiro, S. Etxaniz, T. Zabala, J. Zubizarreta eta A. Zubiaurre.

● Oinarrizko burtin ikastaroa helduentzat

Lurki Zeramika Taldeak buztina lantzeko teknikei buruzko oinarrizko ikastaroa antolatu du. Helduei dago zuzendua eta martxoaren 2tik apirilaren 2ra bitartean emango da. Ordutegia arratsaldeko 18:00etatik 21:00ak arte izango da, astelehenetik ostegunera bitartean. Izena emateko Lurki Zeramika Taldeak Aita Agirre plazako beheko lokaletan duen egoitzara zuzendu.

Iban Barr enetxeak bigarren saria irabazi du Portugaleteko Komiki Lehiaketan

Iban Barrenetxeak, 25 urteko ilustratzaile eta komikigileak, bigarren saria irabazi du Portugaleteko Komiki Lehiaketan koloreetako modalitatean. Ibanek esan digunez, Portugaleteko lehiaketa Estatu garrantzitsuen artean dago. Parte-hartzaileak 150 izan dira eta irabazi duen saria 80.000 pta.koa izan da. "Horrelako sari batek morala ematen du". *Mujer desnuda en el baño* da lanaren izenburua. "Marrazkia eskuz egin nuen eta gero ordenagailuan eman nion kolorea. Izan ere, azken bi urte hauetan komirik egin gabe egon naiz, ordenagailu bidezko teknikak ikasten aritu bainaiz. Lehiaketara aurkeztu dudana izan da bi urte eta gero egin dudana lehendabiziko lana eta, bete-betean asetzen ez nauen arren, nahiko pozik geratu naiz". Ibanek ordenagailuarekin egiten du lan gaur egun, ilustrazioaren munduan, hain zuzen. Komikien munduan betidanik aritu da. "Seriago, duela 7-8 urte hasi nintzen, Kokoen sartu nintzenez". Sari honez aparte, Ibanek joan den urteko San Bartolome jaietako kartel lehiaketan lehen saria irabazi zuen, jai programaren azala izan zena.



Santa Agedaren omenez kantari

Zapatu goizean eta eguerdian, kalez kale eta auzoz auzo ibili ziren Santa Agedako koruak. Pedro Urain gidari zutela, lehendabizi auzoetan jardun zuten koplatan eta diru eskean, eta beranduago kaleetan. Ohi denez, Errosarioko Amabirjinaren oinetan Salbea abestuz amaitu zuten. Segidan, Baltasar elkartean lagun arteko bazkaria izan zuten. Bestalde, Herri Institutuko ikasleen Santa Eskea agertzen zaigu. Beheko argazkian Santa Agedaren tradizioak gero eta adierazpide gehiago dituela nabaria da urtetik urtera.



Euskal Antzerkitalde Amateurren bilera

EATAE edo Euskal Antzerki Talde Amateurren Elkarteak bilera egin zuen joan den zapatuan Elgoibarren. Urtero hainbat aldiz biltzen dira Euskal Herriko antzeztaldeak, urtean zehar elkarlanean egingo dituzten ekintzak zehaztu eta horiei buruz hitz egiteko. Elgoibarko Kultur Etxean egin zuten bileran Elgoibarko Ekekei, Mutrikuko Goizeko Izarra, Debako Goaz, Oretako Ereintza, Zumaiako Kalakariak eta Etxeberriko Antzerki Taldeak hartu zuten parte. Datorren maiatzean egingo den AEK anpadan egingo dituzten emanaldien inguruan hitz egin zuten bileran.

ESKERTZA

1998ko otsailaren 5ean, 79 urte zutuela hil zen VALENTINA TXURRUKA AROZENAren sendiak, bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Santa Klara auzoko hobekuntza obrak 60 milioi pezetako kostua izan dute

Uholde arriskua gutxitzeko San Migel erreka toa desbideratu egin da

Duela urte batzuk hasi ziren Santa Klara auzoa berritze-ko lehen lanak. Orduetik hona gorabehera asko izan da, horien artean nabarmenena edo garrantzitsuena San Migeleko erreka toaren ingurukoa izanik. Gogora dezagun aipaturiko erreka toaren ubidea desbideratzeko obrak egin direla zonalde hartan zegoen uholde arriskua ekidin nahian.



Salbatorearen irudia Santa Klarara itzuli da.

Azken urte hauetan baita ere, etxebizitzak berriak eraiki dira lehen Santa Klarako komentua zegoen tokian. Komentua bota eta etxeak eraikitzen hasteko lehen fasean izenean, aztarna garrantzitsu batzuk topatu zituzten eta lanak atzeratu

egin ziren. Gaur egun etxebizitzak ez ezik, ondoan Salbatorearen irudia jasotzen duen plazatxo ere ikus daiteke, Jausoro arkuak inguratua.

60 milioiko aurrekontua

Santa Klara auzoan egin diren berritzapen lanen proiektua burutzeko 60 milioitiko gora behar izan dira batez beste. Konponketen ondorioz, auzoko bizitza baldintzak eta azpiegiturak dixente hobetu direla esan daiteke. Guillermo Garate alkatearen hitzetan, "Santa Klara Elgoibarko 'ikus txartela' bihurtu da". Izan ere, Santa Klara auzoan barandilak jarri dira eta elbarrituen gurdientzako aldapa bat. Era berean,

Metala baserriaren eta industriaren artean zegoen hutsunea bete egin da eta epe ertainera zirkulaziorako nahiko oztopo eta arazo sortzen dituen errebueltan aldaketaren bat egitea aurrakusten da.

Autoa aztertzeke zerbitzua martxan izango da otsailaren 16tik aurrera

Iaz bezala, aurten ere Udaleko Ogi- zate Saileko Kontsumitzaileen Bulegoak CADEM eta Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean, autoen azterketa egiteko zerbitzua jarri du martxan. Kontsumitzaileen bulegotik helerazi duten idatzi baten dioen bezala, "autoa egoera onean izatean karburantea aurreztu egiten da, ingurugiroa gutxiago kutsatzen da, autoak berak gehiago iraungo du eta gidariaren segurtasuna gehitu egingo da".

Autoa aztertzeke tokia San Ro-ken kokatzen da, Guardia Zibila- ren koartela izan zen lekuan. Bertan, besteak beste, ixurketaren maila kontrolatzen da, zilindro zapaketa, bateria eta kargatze zirkuitoa, banatze kontrola, gasolina eta karburadore bonbaren kontrola, eskapeko ga-

sen kontrola, gasolina kontsumoa, gurgilak, argiak, amortiguazioaren kontrol bisuala eta bolantearen mugikortasuna kontrolatzen dira.

Zerbitzu osoaren kostua 1.500 pezetakoa da baina aukeran dago azterketa murriztua (eskapeko gasen eta gasolina kontsumoaren kontrola bakarrik) 500 pezetaren truke.

Zerbitzua otsailaren 16tik martxoaren 6ra bitartean egongo da martxan. Ordutegia, goizeko 11:00etatik eguerdiko 14:00etara izango da eta

arratsalde 16:00etatik 19:00etara. Larunbat, igande eta jaiegunetan itxita egongo da. Hori bai, autoa errebisatzeko eguna eta ordua aldeztu aurretik eskatu behar da 908 97 23 41 telefonora deituta.



1500 pta.gatik azterketa osoa egiten dute.

ARRREN

LIko eta DBHko IKASLEEKIN EGINDAKO 41. GEHIGARRIA



Urtarrilaren 30ean, Gandiren heriotzaren 50. urteurrena zela eta, Bakearen Eguna ospatu zen mundu osoan.

Pilar ikastetxekoek ere egun berezi hori ospatu nahi izan zuten eta, "Gaur ere pakea lor daiteke" lemapean, ekintza desberdinak antolatu zituzten ikastetxean bertan. Besteak beste, abestiak kantatu ziren, eskaerak egin zituzten eta bakearen sinboloa den usoa askatu zuten.

Txistea

Senar jeloskor batek emazteari:

– Esaidazu egia; txakurra ni baino gehiago maite duzu, ezta?

– Ai Pello, bai astuna zarela!

Hamaika aldiz esan dizut berdin maite zaituztedala!



Jakitunen eskutik

Haur Eskola (0-3 zikloa)

Hasiera batean Haurtzaindegia langileen beharri-zanean erantzuteko sortua izan arren, pixkanaka bere izaera aldatuz joan zen Hezkuntza Zentro bihurtuz eta helburu nagusia haurrari maila guztietan garapen egokia lortzea izanik. Horregatik, nahiago dugu Haur Eskola deitzea eta ez Haurtzaindegia, hitz hau ez baita oso egokia.

Haur Eskolaren helburuak mundu afektiboari, harreman munduari eta ezagutzaren munduari dagozkie. Adin hauetako haurrek etxean edo kalean ikasten dutena ez dute gogoeta intelektual baten bidez eta programatutako ihardueren bitartez ikasten: ikasteko interesa edo aukera dutelako ikasten dute. Ikaskuntza hori gidatu, bertan parte hartu eta positiboki baloratzen duen pertsona baten laguntzak prozesua eta emaitzak optimizatuko ditu. Hori guztia dela eta, Oitk 3 urtera bitarteko- en ziklo sustatu eta bultzatzea da helburua.

Haurra bere inguruko pertsona eta gauze-kin etengabeko elkarrizketa edo interakzioan garatzen da. Haurrak elkarrekintzako esparruak behar ditu, horietan bere bizitza eta garapena eraikitzen joateko eta horretarako Haur Eskola da esparrurik egokiena.

Haur Eskolan eguneroko bizitza ikaskuntza gai bihurtzen da eta bertan eraikitzen da bakoitzaren nortasuna. Funtzio garrantzitsu eta konplexu hori gauza sinple askok betetzen dute, eguneroko bizitzak. Eguneroko bizitzako gauzatxo arrunt horiek: jatea, lo egitea, atsedena edo norberaren garbitasuna, jolasak edo gauzak

aztertu eta erabiltzea, jostailuak. Sarri errepikatzen diren famili egoerak edo egoera berri eta aurrakusitako-ak ikusi ez baina, hala ere, gure ahalbideen kontzientzia ematen digun hori transmititzen dute. Gauza txiki-ek dute benetako eragina gure bizitzan.

Ikasteak duen arriskuari aurre egiteko, guztiok, haundi eta txikiok, ziurtasunezko esparrua behar dugu.

Haurren premiek kontu berezia eskatzen diote hel- duari: espazio, material eta ekintzen antolamenduan, beraren eskarien aurrean entzuteko eta galderei erant- zuteko prestutasuna, erronka berriei aurre egiteko laguntza eta estimuluak, ekintza eta lorpenak kontuan hartzea, haurra ohar dadila bera garrantzitsua dela beste norbaitentzat, eta kontuan hartzen dutela. Ziurtasunak esparru egokia sortzen du haurraren maila eta gaitasunaren araberrako jarduerak garatzeko, eta beharrean dagoenean animatu egiten du, estimulatu, konpentsatu eta sendotu.

Haur Hezkuntzan, talde hezitzailea funt- sezko zutabea da.

Haur Eskolako pertsonal osoak eraikitzen du Hezkuntza-proiektu komuna, eta horretan guzti-ek esku hartzen dute, iritzi eta estiloak bateratuz, eguneroko zereginari koherentzia eta zentzua emanez.



SUSANA LANGARA
HAUR ESKOLAKO HEZITZAILEA

Zer iritzi daukazuerrromantizismoa.....ri buruz?



"Ba, errromantikoa izatea da mutilak etxera joan eta fut- bola ikusten hasi eta gero, "¡Ay cariño!" esatea."
SAIOA GONZALEZ, 10 urte



"Bi pertsona maitatzen direnean euren barnetik irte- ten den sentipena da. Batzuentzat polita eta beste-"
ANTION ECENARRO, 1 Zurte.



"Erropa brillantea eramaten duena da. Handia naize- nean nik ere horrelakoa izan nahi dut."
LARA MIGUEZ, 7 urte



AINHOA
VAZQUEZ
9 urte

Galde debalde

- 1-Zer oparituko zenioke zure senar/emazte-gaiari San Balentin egunean?
- 2-Zein jateko prestatzen jakin nahi zenuke?
- 3-Nori emango zenioke gustura musu bat?
- 4-Zein arropa jantzi nahi zenuke baina ezin duzu?
- 5-Zein famatu ezagutu nahi zenuke?
- 6-Eskolara joatea gustatzen al zaizu?
- 7-Mozorroa pentsatu al duzu?
- 8-Zer dago hil eta gero?



IÑIGO LARIZ
14 urte

- 1- Bonboi kaja bat bixon artian jateko.
- 2- Patata-tortila egiten badakit baina ama egoten da onduan, ez erretzeko.
- 3- Nere ahizpari.
- 4- Kanpanadun prakak ez diate lagatzen ondiok jazten.
- 5- Spice Girls taldeko Emma.
- 6- Bai, asko ikasten delako.
- 7- Bai, Adams Familiako emakumea bezala joango naiz.
- 8- Ez dakitx, baina zeozer politxa.

- 1- Larrosa bat erregalau eta piropo bat esango nioke.
- 2- Spagetti batzuk salsa goxo batekin.
- 3- Nere arrebari.
- 4- Belarritxakua.
- 5- Abraham Olano txirrindularia.
- 6- Biharrezkua dalako juten naiz baina gustora hala ere.
- 7- Ez, ondik ez.
- 8- Nik uste dot ez dauala ezer baina erlijjuari kasu ein ezkerro, beste bizitza bat dauala pentsau biharko da.

Zer da... *ligea*?

ROBERTO GAMIZ 12 URTE



"Oraindik ez naiz nagusia eta 16 urte ditudanean lige bat edukitzea espero dut."

IVAN MORALES 11 urte



"Neska bat ikusten duzunean begietan txiribitak atera eta motor bat bezala jartzen zara."

ALBERTO CARDABA 8 URTE



"Pamela Andersonekin ligatzea nahiko nuke nik."

ROCIO RODRIGUEZ 8 urte



"Nobiek hankan eramaten dutena da."

SARA IRIONDO 6 URTE



"Musua ematea."


ANE BELZA 6 urte



"Bat lanean dagoe-nean bestea berarekin sartzea."

Denborapasak: ezetz asmatu!

1. Zer dira hauek?



2. Zer galdetu diegu?



MIRIAN MUGERZA
7 urte

"Ez, ondiok ez. 15 urte euki arte ez da ona eta gainera nik nahixao dot sekula ez pasatzia ze neretzat hori ez da ona, zatarra da".

OIER CONTRERAS
13 urte

"Gustau bai, baina egun osua berakin pentsatzen egotia ondiok ez jata pasau. Edozein adinetan pasau leike eta nik uste dot politxa izango dala, baina betirako izatia zailaua da".



3. Zein har hartuko du?



4. Zer galdetu diegu?

– Oso-osu berezia naiz, deitzen badidazu hil egingo nauzu. Esaidazu nor naizen.

– Beti dago zutik kalean zaindari hiru begi dauzka hirurak keinuka.

– Biguna izan arren labainak ezin moztu, suak ezin erre.

Iñigo Astigarragak 29 urte ditu eta Irudia eta Soinua ikasi zuen Andoainen. Gaur egun Gatzagan kokatzen den Ihardun enpresan egiten du lan, hezkuntzara zuzendutako bideo eta multimedia programak lantzen dituztelarik. Hala ere, aste honetan berarekin izatearen arrazoia beste bat da. Izan ere, Iñigok kamera lanak egin ditu Pello Ruiz Cabestani txirrindulari ohiak aurkezturik, ETBn emititzen hasi den Auñamendietan saioan .

“Auñamendietan programia eitxia aberasgarria izan da”

- Nola sortu zitzaizuen Auñamendietan lan egiteko aukera?

- Ideia Agustin Goenega oñatiarrarena izan zan. Manu Izagirri eta neri komentau zigun ETBra proiektu bat aurkeztu zabala produktora baten bidez eta ia prest egongo ginan berakin juteko kamara lanak eitzen laguntzera. Esperientzia politxa izan zitxekeela ikusi gendun eta aurrera.

- Zein programa mota da?

- Mendixari buruzko atalak dia baina ez da espedizio bat itxera mugatzen. Mendi bat itxiaz gain, inguruan dauden herrixak eta ikusgarrixak dian beste gauza batzuk ere erakusten ditxu. Mendixa erakusteko beste era bat da.

- Zenbat saio dira?

- Momentuz lau programa piloto ein dia ikusteko zela funtzionatzen daban eta ze harrera dakan jendian artian. Positibua bada, gehixo grabatzeko aukeria egongo da.

- Zuk bi saiotan hartu duzu parte.

- Bai. Batian Anie mendixa ein genduan eta bestian muntain-bike ibilaldi bat izan zan.

- Zer moduzko esperientzia izan da?

- Politxa baina neretzat nahiko gogorra, ze aspaldixan mendixan gehixegi ibili gabe nauan, eta horri gehitzen badiozu kamaria gainian hartuta jun bihar zerala eta elurra zauala nekosuaua eitzen da. Hala ere, oso esperientzia ona izan da.

- Joan aurretik dena zehaztuta zenuten, ez?

- Bai, gidoi baten arabera ein genduan lan. Agustinek dana-dana zakan neurtuta, zein plano nun hartu... Dan-dana. Pega bakarra egualdixana izan zitxekeen baina oso suerte ona euki genduan. Planteamendua ez zan espedizio bat antolatu eta guk kamariakin hartzia, aldrebes zan. Hau da, telebisorako programa bat grabatzera jun ginan eta horregatik, gidoi baten arabera funtzionatzen dau danak.

- Auñamendietan ikusten diren irudiak zuzenean ikusten direnak baino politagoak al dira?

- Gure lana da irudixen ahalik eta kalitaterik onena lortzia. Kamariakin zaudebian bisoretik ikusten dozu dana eta askoz murrizaua da, ez dozu paisajiaz hainbeste disfrutatzen. Gainera, kamariakin zuk nahi ditxuzun irudixak bakarrik hartzen ditxuzu, politxenak, eta horiek emititzen dia, nahiz eta errealidadian gauza politxak eta ez hain politxak egon. Hala ere, programa baten ikusten dana baino esperientzia askoz ere aberasgarriaua da atzetik dauana.

- Zein zentzutun?


- Programia grabatzen hamar egun egon ginan eta kriston harremana sortzen da ekipoko jendian artian, refugixoko jendiakin, herriarrak ezagutzen ditxuzu, toki berrixak... Esan nahi dot, programan 20 minututan laburtzen da dana baina horren atzetik hamar egunetan euki ditxugun bizipenak daude eta horiek bai diala benetan aberasgarrixak.

IÑIGO ASTIGARRAGA

BESTE EK ESANA

**“Ezezagunari eta zailtasunari aurre egitea gustatzen zaio, gauza berriak ezagutu nahian.”
MANU IZAGIRRE, lankidea**





**Julian Triondo
Sangroniz**

Julian Sallobenteko Be-koetxe base-
rrian jaioa da. Duela 20 urte
Madrilera al-
de egin zuen
Danobateko
ordezkari
modura. Ber-
tan 7 urte

egin ondoren, egun batean, Caja La-
boral Taldeak Cubara joateko es-
kaintza luzatu zion. Asmoa Caja La-
boraleko enpresak Cubako merka-
tuan sartzea zen. "Nire lana zela eta,
askotan Euskal Herriko enbaxadore
lanak egin behar izan nituen. Adibi-
dez, Euskal Herriko enpresariak Cu-
bara joaten zirenean bertako enpre-
sariekin kontaktuan jartzen nituen,
inoiz ministroekin ere bai".

Caja Laboraleko enpresen bitar-
tekaritza lana amaitu zuenean, Zara-
gozako enpresa batentzat hasi zen
lanean. Azken 5 urteak lan horretan
eman ditu Cuban. Izan ere, oraintxe
buelatu berri da Madrilera. "Hiru
seme-alabak Madrilen dauzkat. Ka-
rrera ikasteko itzuli ziren eta nire
emazte Mertxeren senitartekoak ere
Madrilen daude. Gainera, Cubako
egoera ere ez da oso ona, azken ur-
teotan gainbehera handia ezagutu
dugu. Gauza batzuk eta besteak ba-
latzan jarri eta azkenean, bueltatzea
zela onena ikusi genuen".

Hainbeste urte itsasoaz bestalde
bizi eta gero, Madrilen "etxean mo-
duan" sentitzen dela aitortu ditu.
Hori bai, gogoan ditu oraindik Ge-
minisen lanean ibil zen garaia eta
San Bartolome Txiki eguna "sakra-
tua" dela aitortu digu.



VIAJES **BILBAO EXPRESS** B. SARRA

**bidai agentziak
babestutako atala**

Foruen plaza, 3
Tel: 74 39 12

Fermin Barronetxea Bernedo

(1906-1967)



- 1906ko uztailaren 7an jaio zen gaur egun desa-
gertutako Artetxe baserrian, Melintogo etxearen al-
boan. 6 anai-arreba ziren, bera bosgarrena.
- Eskola publikoetan ikasi eta etxeko baratzean la-
guntzen zuen. Gazte ausarta eta gorputz sendokoa
zen, kirolzaletu handia.
- Sasoi hartan, bai kirolean, bai nor bere terrenoa
defendatzen, bai eztabaidetan, elkarririk ibil-
tzen ziren bi kuadrila zeuden, Madalenatarrak eta
Plazatarrak. Fermin tartekoa zen. Batzuek besteari
esaten zioten: "madalenatarrak Madalenara eta pla-
zatarrak Plazara!".
- Ferminen lehen lana Ziaranen tailerrean izan zen.
- Boxeo munduan sartu zen. Zerbait ikasi ondoren
Bilbon 12 bat borroka egin zituen afizionatu mo-
dura. Profesional gisa ere pare bat borrokaldi egin
zituen. Orduetik aurrera boxeatzailer modura ezagu-
na izan zen Fermin Artetxe.
- Afrikan soldaduzka egin ondoren, Galdakaoko Fi-
restonen lanean hasi eta arduradun izendatu zuten.
- 1936ko gerratean Bilboko gartzelan eta Santoñan
egon eta gero, herrira itzulita, Josefa Arcerekin ez-
kondu eta 3 seme izan zituzten.
- Tornulari lanetan jardun zuen Sigman. Urte ba-
tzuk geroago, beste lau bazkiderekin, "Construc-
ciones Abate" sortu zuen.
- C. D. Elgoibarko zuzendaritzako kidea eta presta-
tzailea izan zen eta lan mordoa egin zuen. Beste kirol
batzuen artean, esku pilota ere gogoko zuen. Baina
txirringarritza gaietan zen batez ere eztabaidazalea.
- Xelebrekeria batzuk: Ferminen ama 70 urterekin Le-
runera joaten zen C.D. animatzera. Herrian Fermini
abesti bat atera zioten bere kirol zaletasuna zela eta.
- Bear-Dana elkarteko bazkidea izan zen eta pa-
randa ere gogoko zuen. Gizon alaia, atsegina, ba-
rre argikoa, herrikoa eta borondatetsua zen Fermin.
- 1967ko irailaren 11n hil zen 61 urterekin.

Juanito Gorostiza



Urrutira deitu gabe
bertakook segituan
konponduko dizugu
igogailua

☎ 20 35 15

☎ ABERIAK 20 31 25
Bista Eder, 11 (sotanoa)
20600 EIBAR



Pedro Muguruza 5
Tel 74 08 06
20870 ELGOIBAR



azkue

Argazki hau **Jose Luis Odriak** ekarri digu. 1963ko irailaren 22an, Elgoibarko Udalak omenaldia egin zien pilotari beteranoei eta ordukoa da erretratua. Egun honetan gure herriko frontoia 100 urte bete zituen.

Azkuek ateratako erretratu honetan frontoian ageri zaizkigu pilotariak.

Atzeko ilaratik hasita, ezkerretik eskumara: **Kasimiro Zabala 'Zabala II'** (†), **Mariano Juaristi 'Atano III'** (†), **Jose M. Ansola 'Garro'** (†), **Bixente Sol** (†), **Enrike**

Gil, Fructuoso Arrien 'Arrien I' (†), **Migel Gallastegi 'Gallastegi I'**, **Bibiano Etxabe 'Artetxe'** (†), **Jose Luis Akarregi**, **Teodoro Osoro** (†), **Faustino Badiola** (†), **Jose Luis Leiaristi**, **Inaxio Kortabitarte** (†), **Jose Rezola** (†) eta **Fermin Ruiz de Gauna**.

Eserita daudenak: **Justo Juaristi 'Artazo'** (†), **ezezaguna**, **Jerardo Arriola 'Arriola I'** (†), **Angel Ajubita alkatea**, **Manuel Zabala 'Zabala I'** (†), **Segundo Zengotita** (†) eta **Felix Irureta 'Irureta II'** (†).

Haurra **Fermin Ruiz de Gaunaren** semea da, **Jesus Mari**.



I. URTEURRENA

1997ko otsailaren 13an, 73 urte zituela hil zen
MARIA DOLORES IRIONDO ANSOLA.

Beti gure bihotzean.

GOIAN BEGO





"Azkenenengo bueltan irabazten saiatzen naiz"



Julen Merino

- **Adina:** 11
- **Kirolaririk gogokoena?**
Martin Fiz eta Jon Brown
- **Txandalarentzako kolore bat?** Urdina
- **Eskolan zer moduz zoaz?**
Denetik ateratzen dut, nahikoak, gutxiak ere bai...

- **Noiz hasi zinen korrika egiten?**

- Bederatzi urte nituenian, hirugarren mailan. Arrebak korrika egiten zuen Mintxeta Atletismo Taldean eta niri ere gustatzen zitzaidanez apuntatu egin nitzan.

- **Zein distantzian aritzen zara?**

- Normalean 1.000 metro eta 400 metro, distantzia piskat luziak. Karrera motzak ez jataz gustatzen ze nik resistenzia dakat eta motzetarako sprint-a bihar da, be-lozidadia.

- **Entrenamenduetara gustura joaten zara?** - Bai, entrenatzaileak Pedro Cardaba eta Dani Rino dira eta oso ondo konpontzen naiz eurekin. Batzuetan pistan ibiltzen gara eta beste egunean, adibidez, kanpoko aldiak ibili ginan.

- **Beti lortzen duzu lehenengo ar-tean egotea. Nola lortzen duzu?** - Normalean beti juten naiz aurrekuekin batera. Ez naiz juten lasterketa buruan, beti zeo-zer atzerago eta azkenengo bueltan, sprintatu eta hola irabazi eitzen dot. Indarra az-kenarako gordetzen saiatzen naiz. Entrenadoriak erakutsitako taktikak dira.

- **Askok sufritzen duzu lasterketetan?**

- Ez. Lasai juten naiz, izerdirik ez dot eitzen. Lesiorik eta horrelako problemarik ere ez dot euki.

- **Altura, luzera jauzia, bailak,... horiek ere egiten dituzu?** - Ez, hoiek ez jataz gustatzen. Behin edo ein naban baina ez naiz korrika bezain ona eta ez jataz gustatzen.

- **Zenbat domina irabazi dituzu da-goeneko?** - Lau uste dot, ez naiz gogo-

ratzen zein karreratan baina lau domina da, pistan ixa danak.

- **Krosa, pista estalia, aire librea,... non zaude gusturago?** - Krosa da gehixen gustatzen jatana. Herri batzuetako krosetan hartu dot parte: Idiazabal, Lasarte, Bera, Hernani. Normalian 1.900 metro izaten ditxue eta gehixen gustatzen jatana da, ze belarrian eitzen da korrika eta ez asfaltuan. Pistako karreretan, orkatilan errezaio har-tzen da mina.

- **Beraz, krosetako korrikalaria izatea ez legoke gaizki, ez?** - Ez, Martin Fiz asko gustatzen jata baina bera oso ona da eta horretarako asko entrenau bihar da. On-diok txikixa naiz eta badao denporia.

- **Hemendik eta hurrengo hilabeteetan zein txapelketatan hartuko duzu parte?** - Orain kros txapelketak ari gara korritzen. Igandean Donostian krosa egon zan baina ni ez nintzen jun. Entrenatzaile-ak esan zian ez juteko ze hilaren 15ean Hernanin korritzen dut eta martxoaren 1ean Lasarten Gipuzkoako txapelketa dakat. Lehen aldiz hartuko dot parte holako txapelketa batian baina ez nao nerbioso.

- **Ahal duzun gutzia saiatzen zara ala...?** - Bueno, gehixegi ez naiz saiatzen baina entrenadoriak esango bazian gehi-xo saiatzeko, kaso ingo nion.

- **Nork ematen dizkizu aholkulak kirol kontuetan?** - Nire arrebak eta ba-tez ere entrenatzaileak. Gurasoak ere be-ti daude nire ondoan, animo mordoa ematen diate eta beti etortzen dira nire-kin lasterketa guztietara.

ESKOLAKO ARTEKO KIROKIAK

EMAITZAK (Otsailak 7, 10. jardunaldia)

ARETO FUTBOLA

- **Alebin mutilak** ■
Mendaro B 1 - Ikas Gol 10
Ikas Espabidubi 1 - Pilar All Star 6
Ikas Inpernu 2 - Herri Boomerang 7
- **Alebin neskek** ■
Ikas Laino 0 - Pilar Girls 8
Ikas Trumoi 1 - Pilar Ikas 2
Ikas Txingor 4 - Herri Argi 3

ESKUBALOIA

- **Benjamin mutilak** ■
Pilar Bulls 4 - Ikas Bulls 18
Ikas Bihurri 4 - Herri Otsokak 2
Ikas Gorri 0 - Pilar Lakasitos 6
Ikas Tximista 7 - Mendaro A 3
- **Benjamin neskek** ■
Pilar Txiki 0 - Ikas Beleak 15
Ikas Hartz 2 - Ikas Ortzadar 10
Ikas Bizkor 0 - Pilar Usoak 15

AGENDA (Otsailak 15, larunbata, 11. jardun.)

ARETO FUTBOLA

- **Aleb. mut. (Mintxetan)** ■
10:30 Ikas Espabidubi - Pilar Flash
11:15 Ikas Inpernu - Ikas Gol
12:00 Herri Boomerang - Pilar All Star
- **Aleb. neskek (Herri Eskolan)** ■
10:30 Ikas Trumoi - Ikas Planet
11:15 Ikas Txingor - Pilar Gilrs
12:00 Herri Argi - Pilar Kas

SASKIBALOIA

- **Infantil mutilak (Ikastolan)** ■
9:45 Ikas Bolita - Pilar Ajax
10:30 Ikas Axelko - Ikas Otsokoak
- **Infantil neskek (Ikastolan)** ■
11:15 Blablatarrak - Ikas Trans
12:00 Ikas Gorribeltz - Pilar Mix

3X3 SASKIBALOIA

- **Kadeteak (Pilar ikastetxean)** ■
11:00 Pilar Boys A - Basati A
11:45 Basati A - Basati B

ESKUBALOIA

- **Benj. mutilak (Kiroldegian)** ■
10:00 Mendaro A - Pilar Lakasitos
12:00 Ikas Gorri - Ikas Bulls
12:30 Pilar Bulls - Ikas Bihurri
- **Benj. neskek (Kiroldegian)** ■
9:30 Pilar Txiki - Ikas Hartz
10:30 Ikas Bizkor - Ikas Beleak
11:30 Pilar Usoak - Ikas Ortzadar

Kiroldegiko kantxa domekan, hilak 15, berrinauguratuko da

Bidasoa eta Arrate eskubaloi taldeek jokatuko dute

Ofizialki, domekan berreinaguratuko da Kiroldegiko kantxa. Patronatuko zuzendariaren esanetan, "zolu sintetikoari esker amortiguazioa askoz hobea da eta lesioak ebitatzeko aproposa".


Goizeko 10:30ean Eskubaloi Taldeko kadete neskek zarauztarren aurka

ko partidua jokatuko dute. 12:30ean, inaugurazio ekitaldiari hasiera emango zaio Haritz Dantzari Taldea eta Udal txistulari Taldearen eskutik. Segidan, alkatetako plaka bana emango die Arrate eta Elgorriaga Bidasoa taldeko ordezkariari. Ondoren, bi taldeen arteko norgehiagoka hasiko da. Haurrek sarrera doan izan-

go dute; gazteek 200 pta. eta helduek 500 pta.

8 milioi pta.

Kiroldegiko kantxako berritze lanei esker itokinak konpondu, hormak eta ro-kodromoa margotu, zolu sintetikoa jarri eta kanasta berriak ipini dira. Lanen zenbatekoa 8 milioi pta.koa izan da guztira. Lan hauek egitea posible izan da 97ko diru kontuen balantzean irabaziak izan zituelako Patronatuak. Aurrerago, igerilekuko sabaia kopontzeko asmoa dago. Dagoeneko Inje-lan enpresa proiektua prestatzen ari da eta Aste Santurako amaitzea espero dute. Behin proiektua diseinatua dagoenean, hainbat enpresarekin harremanetan jarriko da Patronatua aurrekontu ezberdinak aztertzeko.



FEDERAZIO KOPA

Haundi 3 - Calahorra 1

Azken ordu laurdenean sartu zituzten elgoibartarrek 3 golak

Pasa den asteazken iluntzeko Kopako partiduan Haundik bere izenari ohore egin zion. Itzulerako partidua jokatu behar zuten Haundik Mintxetan Calahorra taldearen aurka. Joaneko norgehiagokan Haundik huts egin zuen eta sailkatu ahal izateko, gutxienez bi goleko errenta lortu beharra zuten elgoibartarrek.

Partidu hasieratik elgoibartarrek Calahorakoak baino hobeto ari baziren ere, 56. minutuan Ivan atezainaren erru baten ondorioz, errioxarrak markagailuan aurreratu ziren. Gauzak oker zeuden elgoibartarrentzat. Hala ere, edozein egoerari aurre egiten dakitela ederki erakutsi zuten. 77. minutuan, Mikelen pase bati esker, Díazek elgoibartarren lehen gola sartu zuen. Bigarren tantua bost minutu beranduago etorri zen. Arbitroak Beitiari egindako falta

ikusitakoak eta penaltia bota zedin agindu zuen, nahiz eta errioxarrak ez egon konforme. Mikel izan zen penaltia gol bihurtu zuena. Markagailua 2 eta 1 zegoen baina elgoibartarrek ez zuten etsi. Partidua amaitzeko bost minutu eskas falta zirenean Mikelek berriz ere, hirugarren gola sartu zuen. Sekula baino gehiago, Haundik bere izenari ohore egin zion.



artxiboko irudia

EMAITZAK

Futbola

Haundi 3 - Calahorra 1
Elgoibar 4 - Orioko 1 (1. jub.)
Pedrusko 4 - Celtic Bidasoa 1 (2. erreg.)
Elgoibar 4 - Intxaurren 0 (2. erreg.)
Elgoibar 0 - Real Sociedad 4 (Inf.)
Elgoibar 0 - Oiartzun 7 (Neskak)

Eskubaloia

Leizaran 5 - Unceta Elg. 11 (Kad. nes.)
Pagoaga Elg. 27 - Hernani 7 (Jub. nes.)
Hondarri 24 - Elgoibar 20 (Seniorrak)

Areto futbola

Elgoibar F. S. 3 - Axular 1 (1. maila)
Elgoibar F. S. 2 - Intxaurren 1 (Auton.)

Idarraga Kafeak I. Sariak

C.D.ko jokalarri erregularrena 97/98

Jokalaria	Puntuak
1- Eneko Barrenetxea	30
2- Miguel Díaz	29
3- Gorka Guarrotxena	25
4- Gaizka Lazarobaster	19
5- Ander Iruretagoiena	19
6- Iker Atxabal	19
7- Jabier Gurrutxaga	18
8- Joseba Igartua	15
9- Karlos Madina	15
10- Koldo Agirregomezkorta	15
11- Unai Aranburu	14
12- Xabier Alonso	9
13- Jon Argoitia	9
14- Igor Prieto	8
15- Aitor Trebiño	8
16- Mitxel Badiola	6
17- Aiert Zinkunegi	5
18- Mikel Elgoro-Iribe	4

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 14

12:15 Elgoibar - San Ignacio (Kad.)

17:00 Haundi - Aurrera Vitoria

Igandea, 15

10:30 eta 12:30 Elgoibar - S. D. Eibar

(Alebinak)

16:30 Elgoibar - S. Ignacio (E. L. jub.)

Eskubaloia, Kiroldegian

Larunbata, 14

17:00 Elgoibar - Urnieta (Seniorrak)

Igandea, 15

10:30 Unceta Elg. - Zarautz (Kad. nes.)

12:30 Bidasoa - Arrate (seniorrak)

Osteguna, 19

19:15 Pneumax Elg. - Arrate (Kad. mut.)

20:45 Tecnomeca Elg. - Arrate (Jub. mut.)



RI 21

Ostegunak 1
Igandeak 0

Zerk mugiarazten du pertsona bat ostegunetan zinera joateko orduan? Egunerokotasunak, jakinminak,... batek daki, gehienetan filme on bat ikusteko irrikak. Horietako ostegun batean, errekomendazioz lagundutako **“Tocando al viento”** filmea ikustera joan nintzen (adiskide batekin joan nintzenez, ginen esan beharko nuke). Eserlekuan eseri eta albokoarekin solasalditxo bat eduki ondoren, filmea hasi zen. Askok jakingo duzue, musika banda baten inguruan egituratzen da filme osoa, baina horri buruz beste batek idatzi beharko luke. Hamabost minutu pasatu ondoren, Joaquín Rodríguez **“Concierto de Aranjuez”** famatua jotzen hasi ziren, fliskornoa bakarlarik gisa zebilen bitartean. Isiltasuna ikaragarria zen, bat-batean bakarrik nengoen, bakardadearen samurtasunean, melodiaren aberastasunak eta goibeltasunak isolatzen ninduelarik. Ez dakit zenbat alditan entzun dudan kontzertu hau, baina zainak ireki eta ileak puntan jartzen dizkidan lehen aldia da. Bidaiak bost minutu iraun zituen, eta sekuentzia bukatu zenean, urrunean distira bat ikusi nuen, malako bat ote? Ispilu bat besterik ez zen. “Ongarri”a benetan.

Iban Urizar eta Julian II.

20 bat kontzertu antolatu dira Gaztetxean azken hilabeteotan

Aisialdi taldea da musika emanaldien arduraduna

1997ko abuztuan ireki zituen ateak Gaztetxeak. Orduetik kasik sei hilabete pasatu dira eta Gaztetxean gero eta jarduer gehiago antolatzen direla ikusi dugu. Mainer Elustondo Aisialdi Taldeko kidea da eta berak esan digunez, dagoeneko 20 bat kontzertu egin dira Gaztetxean. Lantaldeak irekiak dira, eta nahi duenak edozein ideia emateko aukera baduela azpimarratu digu gazte honek.



Goiko agazkian, Gaztetxean egindako bilera bat. Behean, Ehun Kilo taldearen agurreko kontzertua.

Ostirala edo larunbata. Sarri askotan, kasik asteburero antolatzen du Gazte Asanbladako Aisialdi Taldeak kontzerturen bat. Gehienetan musika taldeen saioak izaten dira, baina lantzean behin, herriko kolektiboekin elkarlanean, antzerkiak ere egon izan dira. Elkarlanean esaterako, Errotaxorekin, Zazpikirekin eta Amnistiaren Aldeko Batzordeekin antolatu izan dituzte antzerkiak eta kontzertuak.

Orain arte Gaztetxean egin diren ekin-tzak hauexek izan dira: 20 kontzertu, malabar ikastaro bat, bi antzerki, bi herri bazkari eta erakusketa bat.

Ikuslegoaren gorabeherak

Ikuslego aldetik kontzertuak izan duten estimazioa ezberdina izan da kasu bakoitzean. “Danetik dao. Ehun Kiloren agurreko kontzertuan, adibidez, ixa 600 pertsona eon zian. ‘Hot Dogs eta Pleasure Fuckers’ taldia ikustera ere jende mordua etorri zan. Baina beste batzuetan jendian erantzuna ez da hain ona izan. Ez da beti taldean arabera izaten. Batzuetan sarreria jarri izan dou eta jende asko jun izan da, eta beste batzuetan, sarraripe izan da kontzertua eta apenas jun dan jendia”. Hala ere, balorazioa oso positiboa da.

Nola finantziazten diren kontzertuak galdetu diogu Mainerri. Sarrera doan izanez gero, gastu guztiak Gazte Sanbladaren kontura izaten dira. “Barran lortzen dan diru guztixa normalian kontzertuetarako izaten da. Argi dao talde ezagun baten kasuan ezin leikela barrako diruarekin finantziau. Taldekuek sarreria jartzeko eskatzen badigute, ipini eitzen dou, baina ez beti eurek esaten diguten prezian. Normalian 400 edo 500 pta.tik gora ez dou eskatzen”.

Momentuz Gazte Asanbladakoek ez dute arazorik izan auzokideekin zarata dela eta. “Eon izan da kejaren bat, baina guk daukagun sujerentzien buzoian, bi txalo jasotxugu eta keja bat”.

Aurrera begira, ohiko kontzertuez gain, irteerak antolatzeko asmoa dutela azaldu digu Mainerrek. Hitzaldiak antolatzea, berriaz, beste lantalde baten ardura da, “Kaña sistemari” izeneko taldearena.

Nerea Alvarez

16 URTE



1.- Merez al du bizitza? Eta Elgoibarren bizitza? - Bai, nahiz eta mementu batzuetan bizitzak zentzurik ez duela pentsatu, bizitza merezi du. Elgoibarren bizitza abantailak ditu herri txikia izatean dena eskura daukazulako.

2.- Eutanasia praktikatuko al zenuke familiako batekin? - Oso gaixorik baldin badago eta sendatzeko modurik ez badu bai. Oso gertu bizi izan dut horrelako egoera bat eta dena bukatzen denean gaixoak atsedena har-tzen du.

3.- Hil eta gero? - Ikusi arte ez dut sinesten ezer dagoenik. Nire ustez heriotzarekin dena amaitzen da.

4.- Lehenengo ni eta gero besteak. - Zoritxarrez horrela da baina gaizki dago, besteengan ere pentsatu beharra dago, egoistak izan gabe. Elkar lagunduko bagenu, gauzak errazagoak izango lirakeke.

5.- Nori kontatzen dizkiozu arazoak? - Lagun minei.

6.- Zein da zure bizitzako anbizioa? Eta bizioa? - Zerbait izatea, bai maila pertsonalean baita profesionalean ere. Zorionsua izateko ilusioaren bat edukitzea. Eta bizioa, tabakoa da.

7.- Sinesten al duzu politikan? Ematen al duzu botorik? - Ez, dena faltsua da. Ez nuke botorik emango azken finean denek berdina egiten baitute, herritarroi lapurtu, iruzurra egin eta gauzak hobetu beharrean, okertu.

8.- Noiz joan zinen azkenekoz manifestaldi batera? - Iaz, intsumisioaren aldeko batera.

9.- Euskalduna naiz eta harro nago? - Harro nago nire jatorriaz baina, era berean, munduko biztanle sentitzen naiz eta egunen batean atzerrira alde egin beharko banu nire sustraiek ez ninduten gehiegi lotuko.



10.- Zerk galarazten dizu loa? - Lagunekin eta mutil kontuetan gertatzen zaizkidan gauzek.

11.- Gaztetxea behar al da Elgoibarren? Nolakoa? - Gaztetxea izatea ongi iruditzen zait baina ez naiz gehiegi sartzen. Noizean behin zerbait hartzera bai baina bertan egoteko ez da nire giroa.

12.- Gurasoek asko sufritzen al dute zurekin? - Dexente sufritzen dute, batez ere amak.

13.- Zer da gurasoengandik gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxi? - Guraso oso onak dira, konfidantza osoa dut beraiengan eta gutaz arduratzen dira. Gauza txarrik ez diet ikusten, nire gurasoak dira eta diren bezala onartzen ditut. Eskubide osoa dute eskatzen digutena eskatzeko.

14.- Laguntzen al duzu etxeko lanetan? - Batzuetan, baina oso gutxi.

15.- Alkoholik gabe ondo pasa daiteke? - Bai, animatua bazaude zertarako behar duzu alkohola?

16.- Irakurri duzun azken liburua? - "Calles frías".

17.- Sexua maitasunik gabe ala maitasuna sexurik gabe? - Maitasuna sexurik gabe.

18.- Birjinitatea: sakrifizioa ala bertutea? - Neska batentzat bertutea baina mutilentzat seguruena traba izango da.

19 - Homosexual batek maite zaituela esango balizu? - Normal, ez nintzateke beldurtuko eta beste edozein bezala tratatuko nuke.

20.- Sinesten al duzu betirako maitasunean? - Ez, beharbada nolabaiteko maitasuna edo kariñoa beti mantenduko da baina hasieran sentitzen duzun argia desagertu egiten da.

INTERESEKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia:
 Larrialdiak 461111
 Txanda hartzeko. 743354
 Planning-a 742950
 Alkoholiko Anonimoak 740385
 D.YA (anbulantzia) 464622
 Gurutze Gorria 743864
 Mendaroko Ospitalea. 756264
 Odol Emaileak 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak. 740442
 PESA (Eibar) 902 10 12 10
 Taxi geltokia. 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua. 744366
 Udal Kirol Patronatua 744415
 Kultura Zerbitzua 742158
 Mendaroko Udala 756100
 Ongizate zerbitzua 741008
 Udaletxea 741050
 Udalzaingoa 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra 741626
 Kirolegia 744415
 Kontsumo Bulegoa 743088
 Liburutegia 743525
 Musika Eskola 742145
 Mintxeta 744315
 Parrokia 740842
 Postetxea 741547
 Gaztetxea 741357

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza. 740296
 Zaharren Biltokia 740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola 74 21 41
 Herri Eskola 74 08 79
 HHI. 74 08 80
 I.M.H. 74 41 32
 Herri Institutua
 Arreiturre 74 02 67
 Ezenarro (Meka) 74 44 80
 Ikastola 74 44 41
 Pilar Ikastetxea. 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN. 74 41 12
 El Diario Vasco 74 40 73
 El Correo Español. 74 10 82
 Egin 10 84 21
 Zazpiki Irratia 74 34 74

13

ostirala

19:00 GAZTE ASANBLADAren
BILERA
 Gaztetxean

22:15 ZINEA
 "In and out"

14

larunbata

19:30-22:15 ZINEA
 "In and out"

22:30 KONTZERTUA
 "Los Rösslis"
 Gaztetxean

15

igandea

12:30 BANDAren
IHAUTERIETAKO
KONTZERTUA
 Herriko Antzokian

16:30-19:30-22:15 ZINEA
 "In and out"

16

astelehena

19:30-22:15 ZINEA
 "In and out"

19

osteguna

15:30 PILAR
IKASTETXEKO
IHAUTERI JAIA

22:15 ZINE KLUBA
 "No va más"
 Antolatzailea: Ongarri
 Zine kluba

20

ostirala

18:30 ODOL
ATERALDIA
 P. M. Urruzuno 8an

19:00 GAZTE ASANBLADAren
BILERA
 Gaztetxean

22:15 ZINE KLUBA
 "No va más"
 Antolatzailea: Ongarri
 Zine kluba

ZINEA



Zuzendaria: Frank Oz.
Antzezleak: Kevin Kline, Joan Cusack, Matt Dillon.

In and out

Pelikula hau 1994ko Oscar sarien banaketa ekitaldian dago oinarritua. Bertan, Tom Hanks aktoreak Philadelphia pelikularengatik oscarra jaso zuenean, institutuko irakaslea izan zena gogora ekarri zuen. Ideia honetatik abiatuz, protagonista oscar bat jasotzera doan aktorea da. Ekitaldian bere maisua aipatu eta homosexuala dela esaten du. Hemendik aurrera irakaslearen bizimodua erabat aldatuko da.

● **Kontzertua Gaztetxean**

Zapatuan, hilak 14, kontzertua emango du Gaztetxean "Los Rösslis" talde nafarrak. Kontzertua gaueko 22:30ean hasiko da eta ez da sarrerarik ordaindu beharko.



● **Ihauteri jaia Pilar ikastetxean**

Datorren ostegunean, hilak 19, Pilar ikastetxeko Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasle guztiek Ostegun Lodi eguna ospatuko dute. Ohitura denez, ikastetxean mozarrotu eta desfilean irtengo dira Plaza Handiraino. Han, taldetan banatuta, hainbat dantza egingo dituzte. Aurten txorimalo jantzita aterako dira.

● **Odol ateraldia hilaren 20an**

Datorren ostiralean, hilak 20, arratsaldeko 18:30etik 20:30era bitartean, Odol Emaileen Elkartekoek deitutako emaile guztiei odola aterako zaie Pedro Migel Urruzuno 8ko egoitzan. Era berean, odola emateak duen garrantzia kontuan izanda, emaile egiteko gonbita luzatu nahi diote herritar orori.

● **Musika Bandak ihauterietako kontzertua emango du**

Domekan, hilak 15, ihauterietako kontzertu berezia eskainiko Udal Musika Bandak. Jose Antonio Osororen zuzendaritzapean bost pieza entzuteko aukera izango da eguerdiko 12:30etik aurrera Herriko Antzokian. Hauek izango dira joko dituzten obrak: "Gloria pura" J. Francoren pasodoblea, Verdiren "Juana de Arco" obertura, "Bailando con lobos" pelikula ezagunaren soinu banda, "El Bateo" Chuecarena eta "Ihauterietako kantak".

● **"Tai Chi Chuan" teknikari buruzko ikastaroa**

Asteburuan, hilak 14 eta 15, "Tai Chi Chuan" izeneko teknikari buruzko ikastaroa emango du Paulo Chagas maisu brasildarrak. Teknika hau osasunari buruzko ezagutzak hobetu nahi duten pertsona guztientzako aproposa izan daiteke. Ikastaro bera hurrengo asteburuan errepikatuko da, hilak 21 eta 22. Edozein informazio jaso edo izena emateko Surya belardendara zuzendu (S. Frantzisko 23. Tel: 74 25 34).

T R A N D A R R

FARMAZIAK

	Egunez	Gauetz
14	Etxeberria* (Errosario)	Anduaga
15	Etxeberria* (Errosario)	Anduaga
16	Yudego	Yudego
17	Zabaleta	Zabaleta
18	Etxeberria (Errosario kalean)	Etxeberria
19	Escala	Escala
20	Bidasolo	Bidasolo

* (eguerdiko 2ak arte)
ESCALA: Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 75 16 38
ANDUAGA: Mendarozabal, 1 Garagarza. Tel: 75 61 42
ZABALETA: Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 75 13 84

OKINDEGIA

15 igandea Doña Mercedes

ONGARRI zine kluba



Zuzendaria: Claude Chabrol
 Antzeleak: Isabelle Huppert, Michael Serrault.

No va más (frantzia 1997)

1997ko Donostiako Zinemaldian urrezko eta zilarrezko maskorra jaso zituen pelikula onena eta zuzendari onena izendatu baitzuten. Egoera tragikomiko batean girotuta, bi iruzurti joko eta negozioen intriga batean sartuko dira. Kongresu batean, mafiako kide batek 5 milioi franko dituen zorro bat emango die. Mafiosoak banketxe bateko diruzaina dela esaten die.

Lana

◆ ESKAINTZA ◆

- ◆ Neska gaztea bahar da larunbat arratsaldetan tabernako barran lan egiteko. ☎ 74 37 71
- ◆ 18-25 urte bitarteko neska behar da ostiral eta larunbatetan lan egiteko. ☎ 74 45 87
- ◆ **ESKAERA** ◆
- ◆ Etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko neska eskaintzen da. ☎ 74 23 90
- ◆ Modista-diseinatzaile tituluduna eskaintzen da konponketak egiteko eta erropa josi eta diseinatzeko. Esperientziarekin. ☎ 74 21 44 (Ana Isabel)
- ◆ Barne Komertzio titulua duen neska euskalduna eskaintzen da administrazio lanak egiteko. ☎ 74 43 31 (Agurtzane)

Garajeak

- ◆ Marradun garajea alokatzen da San Roke 5-7an. ☎ 74 33 39
- ◆ Garaje itxia saltzen da Pedro Migel Urruzuno kalean. ☎ 74 22 00 (Gaueko 21:00etatik aurrera)
- ◆ Garajea salgai Juan Mugerza kalean. ☎ 74 12 04
- ◆ Garaje marraduna alokatzen da Kalamua kalean, Urasandín. ☎ 74 13 82
- ◆ Garaje marraduna salgai Santa Ana 50 zenbakian. ☎ 74 27 89
- ◆ Garaje marraduna saltzen dut Karakolaren azpian. Garajes Madarixa. ☎ 74 04 34
- ◆ Garaje itxi bat saltzen dut King-Kong-en. ☎ 76 17 95

Bestelakoak

- ◆ Flauta berri bat galdu dut forro grisarekin. Aurkitu duenak **Udal-tzaingoa** laga dezala. Eskerrikasoko.
- ◆ Karitasek sukaldarero banketak edo silak hartuko lituzke.
- ◆ Karro-denda saltzen da. Egoera onean dago. ☎ 74 24 39
- ◆ Paparroke orratza galdu nuen duela 20 egun inguru. Perla bat dauka. ☎ 74 02 68
- ◆ Ume jaioberriarentzat denetik behar dut: kuma, kotxea, bainera... ☎ 74 34 21 (Ion, gaueko 22:00etatik aurrera). Ordaintzeko prest nago.

Etxebizitzak

- ◆ Bikote batek pisua alokatuko luke. ☎ 74 32 68
- ◆ Jantzitako etxea salgai Santa Ana kalean. Igogailua eta ganbara. 70 m2 inguru. ☎ 74 44 61
- ◆ Etxea alokatzen dut Ubitarte plazan. ☎ 74 01 59.
- ◆ Pisua salgai Santa Ana kalean. 4. pisua igogailuarekin. 105 m2 eta ganbara. ☎ 74 11 05
- ◆ Etxea salgai Urasandín. 90 m2, 3 logela, sukaldea, 2 komun, ganbara eta 3 terrazatxo. Koketoa. ☎ 75 52 15
- ◆ Etxebizitza salgai Deban. Alameda parean, hondartzatik 50 metrorra. Berritua. ☎ 908 57 95 89

Saler osketak

◆ SALDU ◆

- ◆ Aukera. Samsung bideoa salgai, SV-60XK modeloa. 4 kabezal, funtzioak pantailan, Eurokonektorea, LP eta SP, Index bidezko bilaketa, autotracking digitala eta estereoa. Urtebete baino gutxiago du. 30.000 pta. ☎ 74 02 09 (Alberto. 19:00etatik aurrera)
- ◆ Ordenadorerako mahaia saltzen da. Berria dago eta teklatuaren balda atera egin daiteke. ☎ 74 44 46 (goizez)
- ◆ Logela osoa eta salarako armarua saltzen dira. Merke. ☎ 74 36 83 (gauez)
- ◆ 62 metro karratuko lokala alokatzen edo saltzen da Kalamua 7an. ☎ 74 18 94/ 945 27 08

Agurrak

- ◆ Zorionak **Agustin Rubiori** hilaren 10ean urteak bete zituelako. Pilar Ikastetxeko 6. mailakoen partez. Aupa Agustin!
- ◆ Zorionak **Iratxe Osorori** otsailaren 18an 9 urte beteko dituelako. Ama, aita, osaba-izeba eta Urko eta Itoitz lehengusuen partez.
- ◆ Zorionak **Lupe Castrillejori** otsailaren 15an urteak beteko dituelako. Bere biloba Saray eta Eiderren partez.
- ◆ Zorionak **amama Claudiari** bere familiaren eta batez ere senar Ricardoren partez San Balentin egunean urteak beteko dituelako.
- ◆ Zorionak **Ane Sanzi** bihar, hilak 14, urteak beteko dituelako. Familiaren partez.

◆ Zorionak **Amaia Epelderi** otsailaren 9an 19 urte bete zituelako, familia osoaren partez.

◆ 15 urte potolo beteko dituen **Ane Barrenetxeari** zorionak bere lagunaren partez, bereziki bi lagun saltseren partez asko liga dezazula. Zorionak!

◆ Zorionak **Iñaki Oregiri** San Balentin egunean 15 urte beteko dituelako. Zorionak zure maitalearen partez.

◆ Zorionak **Ainhoa Uribeetxeberriari** otsailaren 12an 11 urte bete zituelako. Ikastolako 5. mailakoen partez.

◆ Zorionak **Leire Zubiaurreri** gaur, hilak 13, urteak bete dituelako. Aneren partez eta futboleko hobetu dezala.

◆ Zorionak **Oihana Astorkiari** hilaren 6an 14 urte bete zituelako. Cristian Perezen partez.

◆ Zorionak **Sara Perezi** astelehenean 10 urte beteko dituelako. Itsaso eta Ainhoaren partez. Zorionak baita ere Ikas Ortazareren partez.



◆ Zorionak **Iturri**, gaztiak ere zahartu itxen dia! Baina ez arduratu, base-rrixak eta arbolak ere zenbat eta urte gehixo

euki orduan eta edarragoak izaten dia-eta. Urte askotarako! Etxekoak eta señoiritia.

◆ Zorionak **Gorka Oterori** hilaren 12an 10 urte bete zituelako. Guraso eta anaia Inigoren partez.



◆ Zorionak **M.Pilar Aranzabali** hilaren 7an urteak bete zituelako. Familia osoaren partez.

◆ Zorionak **Mikel Garateri** hilaren 18an 2 urte beteko dituelako. Familia guztiaren partez.



◆ Zorionak **Naiara Gomez** hilaren 17an 10 urte beteko dituelako. Familia osoaren eta lagun guztien partez.



◆ Zorionak **Alex Sotari** otsailaren 16an urteak beteko dituelako. Familia osoaren partez, batez ere iloba Saray eta Eiderren partez.

◆ Zorionak **amama Mariari** bihar, urteak beteko dituelako. Ze, amama, urtetik urtera gazteago ala? Zure seme-alaba



eta biloba guztien partez musu handi-handi bat.

◆ Zorionak **Asier Odriozolari** hilaren 19an 3 urtetxo beteko dituelako. Guraso, anaia Ion, aitona-amona eta osaba-izaben



partez.

◆ Zorionak **Ivan Zapatar** hilaren 10ean 5 urte bete zituelako. Guraso, Iker eta Ainhoa eta aitona-amona



partez.



◆ Zorionak **Iñigo Arreseri** bihar, hilak 14, 7 urte beteko dituelako. Ana eta bere familia eta gurasoen partez.

Ondo pasa eta datorren San Balentin arte.

◆ Zorionak **Itsaso Perezi** astelehenean, hilak 17, 10 urte beteko dituelako. Zeinen partez ote? Egun eder-rra pasa eta opari asko jaso!



◆ Zorionak **Manuel Cidi** hilaren 10ean urteak bete zituelako. Familia osoaren partez.

◆ Zorionak **Yolanda Coronadori** otsailaren 17an urteak beteko dituelako. Bere iloba Saray eta Eiderren partez.



Atraxi Karaokea

IHAUTERIETAN Otsailak 21, larunbata
PLAZA HANDIAN

Arratsaldeko 16:30etik 18:30etara

Izan zaitez abeslari egun batez!

ANTOLATZAILEA
Elgoibarko Izarrako



ez ahaztu
disfrazaz
**MOZORROEN
DESFILIA** ere
egongo da-eta

OHARRA:
Play-backa
egiteko aukera
ere izango da.
Bakoitzak bere
musika-zinta ekarri
beharko du.

LAGUNTZAILEAK



Elgoibarko
Udala



Eusko
Jaurlaritza

IHAUTERIAK

1 9 9 8

FOTO OSTARKU

- Ihausterietako zure argazkiak ordu betean errebelatuak

- Ihausterietako estudio argazkiak **PREZIO BEREZIETAN**

C/ Santa Ana N° 5 - Elgoibar




GARAY



HARATEGIA

URDAITEGIA



San Frantzisko, 9 • Tel: 74 13 92



Etengabe berritzen eta modernizatzen kalitatearen eta bezeroaren mesedetan

- Garay harategia betidanik ezagutu dugu. - 1952an, gurasoak Arrasatetik etorri, Prudencio Arozena zenaren harategia erosi, eta aurre-rantzean, lehendabizi eurak bakarrik, gero arreba eta nik lagunduta, gaur arte etxe-koen ardurapean egon izan da.

- Etengabean ikastaroak egi-ten ari zara. - Azken 7 edo 8 urteetan, hamar bat ikas-taro egin ditut. Lehenengo, enpresaren gestioari buruz (zergak, kontabilitatea, informatika,...). Ondoren, elikadura eta haragiaren prestaketa desberdinak eta berriak (gatzunak, marinadak, terrinak, hestebeteak, entsaladak, etab.)

- Kalitatearen aldeko erronkan Eusko Labeleko okelaren salmenta pauso garrantzitsua izan da. Zuk ere horren alde egin duzu apustu. - Beti

Anton Garay



“Horrenbestez etengabeko hobekuntzaren alde egin dut apustu”

egin dugu kalitatearen aldeko apustua. Bezeroek, haragia erosterakoan gauza askori begiratzen diote (zaporea, samurtasuna, gizona, kolorea, etab.), baina bal-

dintza hauek ez dira nahiko-ak.

“Homogeneitatea” eskaini behar dugu, hau da, saltokira datorren bakoitzean kalitate bereko haragia nahi du bezeroak. Lehenengo aitak eta gero nik, Nafarroa, Errioxa eta Aragoi aldera joan behar izaten genuen homogeneitate hau lortzeko. Gaur egun, Eusko Label Okelaren beldintzak bete behar izateak, eta ganaduaren aldaketak, (lehen esne behiak ziren gehiengo) eta haragitarako ganadu arrazen gehitzeak, bertan gizendutako ganaduaren homogeneitatea lortu dute, kalitate eta berdintasun altu batekin. Kalitateko Eusko Label Okelaren baimena lortzea ez da helburua, bezeroaren atsegina baizik, eta horrenbestez “etengabeko hobekuntza”ren alde egin dut apustu.